



“Ez dago alardea baino zinematografikoagorik”

Ane Muñoz | Laburgile porrokatua

... 3, 2, 1... Grabatzen!

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Nori inporta zaio zinea?

Niri, nostalgikoei, bere desagerpena ekiditen ari direnei, jaialdien inguruko faunari, banatzaileei... Hortik aurrera ez dago zinezalerik, pelikulazaleak baino ez daude.

Egungo zine aretoek Oteizaren hutsunearen apologia dirudite!

Karteleran dagoena irentsi behar dut zinezalea naizelako? Zergatik betetzen dira areto guztiak Zinemaldian? Noiztik inporta zaizkigu hainbeste jatorrizko bertsoak? Zinemaldian egotea zinezalea izatea da?

Zinearen esentzia film laburretan dago, Youtuben alegia.

Youtuben dagoen oro ez da, eta den oro ez dago Youtuben. Lehen egunkarietako kronikak komentatzen ziren gisan komentatzen dira orain Youtubeko bideoak. Baina kontuz, Interneten izan nahi duguna gara, ez zinez garena.

Inozoa ni, Interneten talentu bila nenbilena.

Egindakoa derrigorrez saldu behar denean non gelditzen da talentua? Askotan talenturik ez dago, batzuetan ez da erabiltzen, baina talentua ez da sekula beharrezkoa izan pelikula bat egiteko.

Are inozoagoa ni; zinea ez al zen zazpigarren artea?

Talentua eta errodatzeko aukerak ez doaz beti batera. *Public relation* eta gibel handi mor-doa dabil zinea egiten, eta talentudun asko ezin eginez. Filosofia bat daukanak irentsi

behar izaten du, eta dena irensteko prest dagoenak ez dauka filosofiarik.

Kimuak da Euskal Herriko film laburren filosofia.

Zure letxuga saldu eta banatzeko ardura hartzen du Kimuak-ek. Hori da zure laburrak izan dezakeen saririk onena. Baina ez dute sekula nire lanik hautatu, eta nire laburrak nik mugitu eta amortizatu behar izan ditut. Bada-kizu, kimuak eta azken tximuak daude!

Ez zizuten “emakumezko euskal zinegilea” zirela esan?

Ni zinegilea naiz! Bai, emakume euskalduna naiz, baina gizonezkoa eta mongoliarra banintz ere zinegilea nintzateke, ez gizonezko zinegile mongoliarra. Lanean ari naizenean ez naiz nire genero eta jatorriaz kontziente. Nortasunean integratuta dauzkatz eta kito.

Kazetariok ere nortasunean integratuta daukagu film laburretan dabilenari “noizko lehen luzea?” galdetzea.

Zergatik ez didazue galdetzen zer kontatu nahi izan dudana pertsonaia bat hemendik hara mugiaraziz? Ez dakizue film labur batek ez duela zerikusirik luze batekin? Noiz ulertuko duzue laburrak ez direla aurkezpen txartelak?

Alardeari buruzko tajuzko lan bat egiten duzue nean!

Ez dago alardea baino zinematografikoagorik. Gertatu eta gertatzen ari dena hain da surrealista... Denborak egiari arrazoia ematen diotenean, pelikula eraginkorragoa izango da. ■